# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

### 2020

250/1995 DEKRETUA, apirilaren 25ekoa, eskumen zibil eta penalaren aurrean ertzainak defendatu eta ordezkatzeko legelariak gaitzeari buruzkoa.

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorraren ordezkaritza eta defentsa, ekainaren 26ko 7/1986 Legearen 2.1 atalaren arabera, Administrazioak berak ekintza horietarako Zerbitzu Juridiko Nagusietan integratuta dituen legelariei edo beren-berengi gaitutako legelariei dagokie, nahiz eta kasu jakin batzuetan horretarako berariaz aukeratutako abokatu kolegiatu baten esku utz daitekeen ardura hori, horri buruz arauetan xedatzen denarekin bat etorriz.

Euren zerbitzua Euskal Autonomi Elkartean betetzen duten langileen ordezkaritza eta defentsari ere, karguaren eginkizunean izandako iharduera eta omisioegatik, erregimen bera aplikatuko zaie, gai hori Estaturako erregulatzen duten arauetan horrela baitago jasota, eta horiek kontutan hartzeko diote goian aipatutako Legeko 1. eta 3. atalek.

Funtzionarioen kontra jartzen diren ekintza judizial gehientsuenak polizien kontrakoak direla argi eta garbi dago. Euren lanean izandako agiango erantzukizunak eskatzen zaizkie; beharrezkoa dute, hori dela eta, sorospen juridikoa, euren burua era egokian defendatu ahal izateko.

Poliziek euren lana modu zuzenean betetzerakoan ondasun juridikoei eta eskubideei eragiten diete; hortan datza gakoa, izan ere, ondasun eta eskubide horiek garrantzi handikoak dira, eta ondorioz, sano babestuta egoten dira ordenamednu juridikoaren aldetik. Hau da, gerta daitezkeen kalteak tipifikatuta daude penal arloan.

Egoera hori erabat nabarmena zenez, horri buruzko araudia sortu da. Ertzainek, euren lanaren eraginkortasunari begira, behar duten babesketa juridikoa izango dute Administrazioaren aldetik. Ildo horretatik, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean, Euskal Autonomi Elkarteko Poliziaren Arautegiko 146. atala kontutan izanik, ezartzen denez, poliziek eskubidea dute eureei dagokien Administrazioak ordezkatu eta defenda ditzaten euren lanean izandako gertakizunegatik erantzukizunak eskatzen zaizkien iharduera judizial guztietan. Administrazioaren pentzutan egingo da hori.

Ondorioz, lehendakariordeak proposamena egin eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko apirilaren 25ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

# Disposiciones Generales

## VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 2020

DECRETO 250/1995, de 25 de abril, sobre habilitación para la representación y defensa ante las jurisdicciones penal y civil de los miembros de la Ertzaintza.

Conforme al artículo 2.1 de la Ley 7/1986, de 26 de junio, la representación y defensa de la Administración General del País Vasco corresponderá a sus propios Letrados integrados en los Servicios Jurídicos Centrales o habilitados expresamente para dichas actuaciones, sin perjuicio de que, para casos determinados, y de acuerdo con lo que reglamentariamente se disponga, puedan ser encomendadas a Abogado Colegiado especialmente designado al efecto.

El mismo régimen resulta de aplicación a la representación y defensa del personal al servicio de la Comunidad Autónoma del País Vasco por actos u omisiones en el ejercicio del cargo, pues así lo prevén las normas reguladoras de la materia para el Estado, a las que se remiten los artículos 1.º y 3.º de la citada Ley.

Es un hecho constatado que son precisamente los agentes de policía los funcionarios contra los que con más frecuencia se entablan acciones judiciales para la exigencia de supuestas responsabilidades por hechos cometidos en el ejercicio de sus funciones, necesitando por ello asistencia jurídica para defenderse adecuadamente.

La razón sin duda estriba en que en el desarrollo, aun legítimo, de sus cometidos resultan afectados bienes jurídicos y derechos que, por su elevado rango, suelen gozar de la máxima protección que puede brindar el ordenamiento jurídico, esto es, la tipificación penal de los menoscabos que sufran.

La evidencia de aquella circunstancia ha tenido un reflejo normativo al reconocerse expresamente a los miembros de la Ertzaintza, en aras de la eficacia del servicio, el derecho a que la Administración les preste la cobertura jurídica necesaria. Así, contando con el antecedente inmediato del artículo 146 del Reglamento de la Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, establece que sus integrantes tienen derecho a ser representados y defendidos por la Administración pública de la que dependan, y a cargo de ésta, en todas las actuaciones judiciales en que se les exijan responsabilidades por hechos cometidos en el ejercicio de sus funciones.

En su virtud, a propuesta del Vicepresidente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 25 de abril de 1995,

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Ertzainek euren lana betetzerakoan egindako ekintza edo omisioen ondorio diren prozesu penalek eta zibilek dakartzaten epaiketetan ertzainak eta prozesu horiekin zerikusirik duten Euskal Autonomi Elkarteko interesak ordezkatu eta defendatzeko gaitzen dira Herrizaingo Sailari atxikitako legelariak.

Euskal Autonomi Elkarteak babestutako interes publikoa defendatzeko, beste batzuen aurrean akzioak aurkeztea dakar berarekin gaikuntzak.

Sail horretako goi-kargudunak partaide direneko kasu eta ihardunbideak hartzen ditu gaikuntzak.

*2. atala.*– 1. atalean aipatzen den moduan, prozesuetan ordezkaritza eta defentsa egiteari buruz jasota dauden neurri legalak hartzea Herrizango Sailari dagokio. Horien artean sartzen da Abokatu Elkarteari egindako agindua, ekainaren 26ko 7/1986 Legeko 2.1 atalean jasotzen dena hain zuzen.

*3. atala.*– 1. atalean aipatzen diren ihardunbideen ondorio diren murtziloak, erantzukizun zibilari buruzkoak, Auzibide Zuzendaritzari jakin araziko dizkio Herrizaingo Sailak. Zerbitzu juridiko nagusiek, bidezkotzat jotzen dutenean, Jaurlaritzaren interesak defendatuko dituzte murtzilo horietan.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko apirilak 25.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DISPONGO

*Artículo 1.*– Se habilita a los Letrados adscritos al Departamento de Interior para la representación y defensa en juicio de los miembros de la Ertzaintza en los procesos penales y civiles derivados de las acciones u omisiones producidas en el ejercicio de sus funciones y de los intereses de la Comunidad Autónoma del País Vasco vinculados a dichos procesos.

Para la defensa del interés público tutelado por la Comunidad Autónoma del País Vasco la habilitación comprende también la formulación, en su caso, de acciones frente a terceros.

La habilitación se extiende a los mismos supuestos y procedimientos en los que sean parte los Altos Cargos de dicho Departamento.

*Artículo 2.*– Corresponde al Departamento de Interior la adopción de las medidas legalmente previstas en relación a la representación y defensa en los procesos a que se refiere el artículo 1, incluida la encomienda a Abogado Colegiado prevista en el art. 2.1 de la Ley 7/1986, de 26 de junio.

*Artículo 3.*– El Departamento de Interior comunicará a la Dirección de lo Contencioso las reclamaciones de responsabilidad civil que se deriven de los procedimientos a que se refiere el art. 1, a fin de que los servicios jurídicos centrales asuman la representación y defensa de los intereses del Gobierno respecto a las mismas en los casos que considere oportuno.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de abril de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Vicepresidente del Gobierno,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.